



## ZERBITZUAK

Covid-19ak sortu duen egoerak, gure Ikastolako zerbitzuetan, arau bereziak hartzera behartu gaitu. Jarraian dituzue argibideak:

Gogoratu edozein inzidentzia komunikatzeko honako helbide elektronikora mezua bidali behar dela:

[zerbitzuak@zarauzkoikastola.net](mailto:zerbitzuak@zarauzkoikastola.net)

### Zaintza:

- Plazako iparraldeko sarreratik sartu eta lehenengo dagoen gela erabiliko da (betikoa). Gogoratu gurasoek/arduradunek ezin dutela plazan sartu, horregatik begirale bat egongo da sarrera inguruan ikasleak jasotzeko.
- Bi begirale egongo dira. Plazan dagoen begiraleak egingo dio harrera iristen den haurrari.
- Ikasle guztiak musukoa derrigorrez erabili beharko dute
- Gelara joateko ordua iristean, HH 3, 4 eta 5eko ikasleak begirale batek eramango ditu dagokien geletara; eta LH 1etik gorakoak dagokien eremura eramango ditu besteak.

### Garraioa:

- Autobusaren zain egon bitartean, mesedez, beharrezkoak diren distantziak gorde.
- Ikasle guztiak musukoa derrigorrez erabili beharko dute
- Beti leku berean eseriko dira haurrak.
- HH3, 4 eta 5 urtekoak autobuseko arduradunarekin joango dira beraien geletara. LH1etik gorakoak sarrerarako dagokien gunera joango dira.

### Jangela:

- Jangelan sartu aurretik, eskuak garbituko dituzte, horretarako begiraleek lagunduko diete.
- Geletatik jangelara joateko musukoa jantzita joan beharko dute.
- Bazkal ondoren musukoa derrigorrezkoa izango dute.
- Bazkal ondoren, talde bakoitza dagokion gunera joango da begiralearekin. Eguraldi txarra eginez gero, talde bakoitza bere gelara joango da.
- HH 3koak deskantsu gelara joango direnez, haur bakoitzak bere mantatxoa, maindire txiki bat, panpina edo txupetea (beharraren arabera) ekarri beharko du zintzilikatzeko moduko oihalezko poltsatxo batean. Ostiralero etxera eramango dute garbitzeko.
- LH5, LH6 eta DBHko ikasleek, garajeko sarrera erabiliko dute jangelara sartzeko. Jangelara joan aurretik eskuak garbitu beharko dituzte.
- Gainontzeko mailetako ikasleak, plazatik sartuko dira, betiko atetik.
- Haur bakoitza beti leku berean eseriko da, horretarako bakoitzaren eserlekua identifikatuta egongo da pegatina batekin.
- Gelara eseriko dira. Gelakide ezberdinetako mahaien artean distantziak mantenduko dira.
- KLASEAK GOIZEZ BAKARRIK direnean:
  - HH3 eta HH4ko ikasleak jasotzeko, hiru ordutegi egongo dira plazako iparraldeko atean: 13:30, 14:00 ala 14:30.
  - Gainerako ikasleak ere ordutegi berdinak errespetatu beharko dituzte, eta irteera Ikastolako ate nagusitik izango da. EZINBESTEKOA da



---

hurrengo orrian agertzen den baimena sinatuta ekartzea, bestela 14.30ak arte Ikastolan geratuko dira.

- IKASTURTEAN ZEHAR, bazkal ostean etxera joan behar duten HH3 eta HH4ko ikasleak jasotzeko, plazako iparraldeko atean, 13:30 ala 14:30ean.
- IKASTURTEAN ZEHAR, gainerako mailetako ikasleek, bazkal ostean Ikastolako eremutik ateratzeko aipatutako baimena sinatuta ekarri beharko dute eta 13:10ean BAKARRIK irten ahalko dute. Arratsaldean maila bakoitzari dagokion ordutegian sartuko dira.

#### Eskolaz kanpoko ekintzak

Covid-19ak sortu duen egoera berri honen garapenaren arabera eta Osakidetza nahiz Hezkuntza Sailak dioenaren arabera, oraingoz ez ditugu eskolaz kanpoko ekintzak martxan jarriko. Aurrerago aztertuko da, ekintza hauek abiaraztearen egokitasuna.

#### Garajea:

- Bizikletak ez dira garajeen gordeko.
- Bizikletak jolas eremuan horretarako egokituko den lekuan jarriko dira, maila bakoitzak berari dagokion lekuan.
- Patineteak garajeen sartuko dira.
- EZINBESTEKOA IZANGO DA BIZIKLETA ETA PATINETEAK KANDATZEA.



GURASOEN BAIMENA SEME-ALABAK IKASTOLATIK ATERA AHAL IZAN DAITEZEN

BAZKALOSTEAN NIRE SEME-ALABA IKASTOLAKO GUNETIK ATERATZEKO BAIMENA EMATEN DUT NIRE ARDURAPEAN.

IKASLEAREN IZENA .....

ABIZENAK.....

MAILA.....

MARKATU "X"arekin DAGOKIONA:

Goizez bakarrik daudenean.....

Ikasturte guztirako.....

(orduak eta asteko egunak zehaztu eta zergatia ere bai egoki balitz)

EGUNAK.....

ZERGATIA.....

Data

Gurasoen sinadura